

Antxitxiketan aisialdi taldea

Aisialdiko talde honek burutzen dituen jarduera guztiak euskara hutsez egiten ditu eta hori du bereizgarri. Uda eta gabonetako udaleku irekiak antolatzen ditu eta herriko beste zenbait proiektutan parte hartzen du.



-Zein urtetan sortu zen taldea?
1992an.

-Zenbat kide zarete?

Gaur egun, 21-23 bitarteko 8 neska gaude taldean, baina sortu zenetik gaur egun arte, jende asko pasatu da taldetik.

-Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Astean behin biltzen gara Elexosten (Euskal Birusa eta Drogeteniturrri aldizkariaren egoitzan).

-Zein helburu dituzue?

Aisialdian euskara bultzatzea eta sustatzea da gure helburu nagusia. Horretarako egiten ditugun ekitaldiak, 7-12 urte bitarteko gaztetxoek zuzenduta daude. Aurten Euskal Birusaren azpi-talde moduan hasi gara lanean.

-Urtean zehar zeintzuk ekitaldi egingen dituzue?

Orain arte, Udaleko Euskara Sailarekin batera, uda eta gabonetako udaleku irekiak izan dira gure ekitaldirik inportanteenak. Gabonetan

6 egun izaten dira eta udan 10 egun. Hemendik aurrera, Aste Santuan udaleku irekiak antolatzeko asmoa dugu eta urtean zehar larunbatetan aisialdirako ekitaldi ezberdinak (mendi irteerak, eskulanak...).

-Web orrialde edo harremanetarako modurik?

Web orrialderik ez dugu baina gurekin harremanetan jartzeko honako helbide elektronikoaren bitartez egin daiteke:

antxitxiketanermua@hotmail.com

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

San Antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTİK

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna